

24. ZENBAKIDUN ALKATETZAREN DEKRETUA

Xedea

Alde Zaharreko Plan Berezia berrikusteko zerbitzu kontratua esleitzeko administrazio baldintza zehatzen orria zuzentzea.

Aurrekariak

Bakarra: 2016ko abenduan 19an Tokiko Gobernu Batzarrak erabagi eban Alde Zaharreko Plan Berezia berrikusteko zerbitzu kontratua esleitzeko baldintza teknikoen agiria eta administrazio baldintza zehatzen orria onartzea, eta deialdia kaleratzea.

Argudioak

Bakarra: Administrazio baldintza zehatzen orrian akats bat dago, 3. puntuan (kontratuaren prezioa):

“Kontratu honen prezioa 69.575,00 eurokoa da, BEZa kanpo. BEZari dagokion zenbatekoa 12.075,00 eurokoa da” dioten lekuan, hau jarri behar da “Kontratu honen prezioa 57.500,00 eurokoa da, BEZa kanpo. BEZari dagokion zenbatekoa 12.075,00 eurokoa da”.

Erabagia

Goian aitaturako guztia kontutan hartuta, honako hau erabagi dot:

BAKARRA: Alde Zaharreko Plan Berezia berrikusteko zerbitzu kontratua esleitzeko administrazio baldintza zehatzen orria zuzentzea.

Bermeon, 2017ko urtarrilaren 11n
ALKATEA

NIRE AURREAN
BEHIN-BEHINEKO
IDAZKARIA

